

UPV/EHUko IKERTZAILE DOKTOREEN
ESPEZIALIZAZIORAKO KONTRATAZIOA EGITEKO
DEIALDIA (2019)
Emandako berria

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak argitaratu zuen

**UPV/EHUko IKERTZAILE DOKTOREEN ESPEZIALIZAZIORAKO KONTRATAZIOA
EGITEKO DEIALDIA 2019**

Behin eskaerak ebaluatzeko izapidea amaituta, errektoreordetzaren webgunean argitaratu zen onartu eta ukatutako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Horren ondoren, 10 eguneko epea izan zuten eskatzaileek egoki iruditzen zitzaizkien alegazioak adierazteko.

Izapide horiekin amaitu ondoren, eta Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) bileran aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, erabaki zen agintzea errektoreordetzaren web atarian onartu eta ukatutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratzeko.

Nolanahi ere, eskaera bat ANEP agentziaren berrikusketaren zain geratu zen. Behin alegazio honen erantzuna jasota, emandako eta ukatutako eskaeren zerrenda berria publikatzea erabaki da.

KONTRATAZIORAKO DOKUMENTUAK AURKEZTEA:

Laguntza onartu duten onuradun guztiek **2020ko otsailaren 24a arte** bidali beharko dituzte, e-mail bidez, dokumentu hauek PDF formatuan, helbide honetara: rrhh-inves.dgi@ehu.eus :

- a. Betekizunen onarpen dokumentua.
- b. Datu pertsonalen fitxa.
- c. Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- d. Doktore tituluaren fotokopia edo tituluari dagokin homologazio agiria.
- e. Lanean hasteko agiria
- f. Europako erkidegokoak ez diren ikertzaileek Espainian bizitzeko eta lan egiteko administrazio baimen administratiboa aurkeztu beharko dute, Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera (abenduarien 22ko 8/2000 Lege Organikoak emandako idazketan).

Gero, dokumentazio hori aurkeztu beharko dute UPV/EHUko Erregistro Orokorrean.

Erabili beharreko ereduak errektoreordetzako webgunean daude eskuragarri ("Dokumentuak" izeneko erlaitza).

OHAR GARRANTZITSUA:

Aurkeztutako eskaera kopurua kontuan hartuta, eta eskatzaile guztiei ahalik eta azkarren erantzuteko asmoz, kontsulta guztiak posta elektronikoko bidez egin daitezela eskatzen da, helbide honetara idatzita:

- **Onuradunak:** rrhh-inves.dgi@ehu.eus. Mezuaren gaian hau jarri: "ID deialdia".
- **Gainontzeko eskatzaileak:** pre-postdoc.dgi@ehu.eus. Mezuaren gaian hau jarri: "ID deialdia".

Leioan, 2020ko otsailaren 10ean

**IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA**

TURNO GENERAL						
KODEA	NAN	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK 1, 2, 3	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK 4	PUNTUAZIOA GUZTIRA	BEHIN-BETIKO EBAZPENA	Berdinketa hausteko irizpideak 14.4 oinarriaren arabera
ESPD0C19/63	71120217P	87,00	0	87,00	EMANDAKO BERRIA	4
ESPD0C19/78	45629436N	81,00	5	86,00	UKATUTAKOIA	